

## 7. BALIABIDEAK

- **Baliabide fisikoak:** Guk proposatutako proiektua ideia bat denez, hau da, guk izandako ideia patentatzea ez dugu behar inolako baliabide fisikorik gure produktuak saltzeko. Izan ere, beste enpresa batzuek (kirol-dendak...) gurekin akordio bat baldin badute, haiek gure produktua salduko lukete haien dendetan edota online.
- **Baliabide intelektualak**
  - **Marka**
    - **Marka bat edo gehiago sortuko dituzu?**

Lehendabizi gure marka nagusiarekin (Motxan) hasiko ginateke eta gero ondo irten bazaigu beste marka sortu ahal izango genuke baina hori beranduago pentsatuko genuke.
  - **Patenteak:** Gure patentearen erregistroa ordainduko genuke gure ideai saltzea delako pentsatutakoa.
  - **Datu baseak: (Produktuarena / Ideia)**
    - **Bezeroei buruzko informazioa:**

Orokorrean, suposatuko dugu gure bezero nagusienak mendizaleak izango direla, mendira joaten direla maiz. Bestalde, beste bezero batzuek ( gutxiengoak) gure ideia eroso eta erabilgarria iruditu zaiolako erosi dezakete bizitza arrunterako ere erabil daitezkelako.
    - **Lehiakideei buruzko informazioa:**

Nahiz eta guk zehazki saltzerako orduan lehiakiderik ez izan, gure produktuak beste produktu antzeko batzuekin lehiatuko da. Izan ere, hainbat bezero galde diezaiokete euren buruari ea gure produktuak benetan pena merezi duen. Alde batetik, gure produktuak erosotasuna eskaintzen du, espezializatu dagoelako eroso izateko, neurriak oso ondo neurtuta. Horrekin soilik ez balu balio, mendiko motxila eta mendiko txaketa banaka erostea baino merkeago da. Lehiakideek soilik mediko txaketak edo motxilak saltzen dituzte ez dana batera, gainera, garestiago dira.
- **Giza baliabideak**
  - **Gure langileek dauzkaten abilezia eta ezagutzak dira:**
    - Guk langile zein enpresaren buru, sormena daukagu, izan ere, ideia bat sortu dugu berria zena nahiz eta merkatuan zertxobait antzekoa dagoen; baina produktu horiek ez dira motxila eta txaketa bat batera

Bigarren Hezkuntzako Institutua **BOTIKAZAR** Instituto de enseñanza secundaria

saltzearenak, soilik txaketa bat edo mendiko motxila bat. Orduan, esan dezakegu berritsuak garela eta hortaz, gure sormena da daukagun baliabide baliotsuena.

- **Finantza baliabideak**

- Nondik aterako dugu negozioa martxan jartzeko behar den dirua?

Guk hasiera batean beharko genukeen dirua, patentearentzako, diseinua sortuta izateko, asesoramendu fiskalarentzako... Horretarako hasiera batean , mailegu bat beharko genuke. Hori hasiera batean izango zen, gero ideia patentatutakoan ez genukeen beste gasturik izango.

